



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailak 12

Vitoria-Gasteiz, 12 de febrero de 2019

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK EEE-REN ETA IVAP-EN ARTEAN IVAP-EK BILBON DUEN EGOITZAN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA HOBETZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA ONETSI DU

- **Auditoretza energetikoak eta bestelako azterlanak egingo dira, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Bilbon duen egoitza jasangarriagoa izateko**

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) artean IVAPen mendeko eraikin eta instalazioetan jasangarritasun energetikoa sustatzeko lankidetzahitzarmena*” onetsi du. Horrela, bi erakundeek dute jasangarritasun energetikoan aurrera egitea eta IVAPen eraikinen edo zentroen kudeaketa eraginkorra hobetzea helburu.

EEE - Energiaren Euskal Erakundeak eta HAEE - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak sinatutako hitzarmenak honako jarduketak hauek jaso ditu:

- Auditoretza Energetikoak, IVAPek Bilbon duen egoitzan (Recalde zumarkalea 18) efizientzia energetikorako neurriak identifikatzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko. Auditoretzak “Eusko Jaurlearitzako Jasangarritasun Energetikoko Batzordeak” jardun-planean eta ondoko berrikuspen-proposamenetan ezarritako irizpideen arabera egingo dira.
- Beste azterlan tekniko batzuk, egin beharreko jarduketak zehazteko eta IVAPen Jardun Plana ezartzeko beharrezkoak.
- Bilboko egoitzako ziurtagiri energetikoa.
- Efizientzia energetikoaren eta energiak berriztagarriekin edo jasangarriagoak direnekin ordezkatzeko neurriak jaso dituen Jardun Plana prestatzea.

Akordioak ezartzen du EEE arduratuko dela auditoretzez, ziurtagiri energetikoez, horien analiziaz eta osteko onespenez, bai eta IVAPi bere eraikin eta instalazioetan efizientzia energetikoko neurriak ezartzeko eta energia berriztagarriak baliatzeko Jardun Plana idazten laguntzeaz ere.

Era berean, IVAPek konpromisoa hartzen du auditoretza, ziurtagiri eta azterlanetarako alderdi teknikoak berrikusi eta onesteko eta horiek aurrera eramateko beharrezko informazioa emateko. Gainera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aktiboki parte hartuko du emaitzen analisisian, Jardun Plana prestatzeko fasean eta hura praktikan jartzean, aurrezpenaren eta berriztagarrien gomendioei jarraikiz.

Hitzarmena urtebetez egongo da indarrean, eta luzatu ahalko da, gehienez 4 urtez. EEEK eta IVAPek bakoitzak ordezkari bat izendatu du, hitzarmenaren

Segimendu Batzordea sortzeko; organo horrek lankidetzeta-hitzarmenean ezarritako jarduketan garapenean sortzen diren informazio, komunikazio, zalantza edo aldaketak transmititzeko bitarteko gisa jardungo du.

JASANGARRITASUN ENERGETIKOA

“Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen (HAEE) artean IVAPen mendeko eraikin eta instalazioetan jasangarritasun energetikoa sustatzeko lankidetzeta-hitzarmena”ren bidez [irailaren 22ko 178/2015 Dekretuak](#) ezartzen duen konpromisoari erantzuten zaio; konpromiso hori Euskadiko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoaren ingurukoa da, sektore publikoan aurrezpena, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera arautzeko. Dekretu horrek ezartzen du sektore publikoko eraikinek eta instalazioek eraikin eta instalazioen auditoretza energetikoak eta jardun-plana izan behar dituztela.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

ZUZENEAN - HERRITARREI ARRETA EMATEKO EUSKO JAURLARITZAREN ZERBITZUAK IA 900.000 KONTSULTARI EMAN ZIEN ARRETA 2018AN, AURREKO URTEAN BAINO % 4 GEHIAGORI

- 3 euskal hiriburuetakako bulegoek jarraitzen dute kontsultarako herritarrek gehien erabiltzen duten kanala izaten
- Kontsulta-gai ohikoenak, aurten ere, etxebizitzaren, gizarte-gaien eta hezkuntzaren ingurukoak izan dira

ZUZENEAN - Herritarrei Arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuak, iaz, 887.878 kontsultari erantzun zien. Alegia, egunean, batez beste, 3.547 kontsultari; horietatik, arreten % 55,7 aurrez aurre izan zen, % 40,8 telefono bidez (012 zenbakian), % 3,1 www.euskadi.eus online postontziaren bidez eta % 0,32 *Telegram* berehalako mezularitzaren bidez.

Kontsulta-kopuru osoak gora egin du, % 4,04, 2017aren aldean. Horrela, 2018an, Eusko Jaurlaritzak aurreko urtean baino 34.460 kontsulta gehiago erregistratu ditu. Nabarmenezkoa da www.euskadi.eus online postontziaren erabileraren igoera finkatu dela: kanal horren bidez, 28.055 kontsulta egin dira, aurreko urtean baino % 23,81 gehiago. Halaber, nabarmenezkoa da berehalako mezularitza-zerbitzuaren erabileran egon den igoera, 2018an % 17,53 areagotu baitzen.

2018-2017KO DATUAK, GUZTIRA ZUZENEAN ZERBITZUAREN ERABILERA (Kanalaren arabera)

KANALA	ARRETA, GUZTIRA 2018	ARRETA EGUNEAN 2018	ARRETA, GUZTIRA 2017	ALDAKUNTZA 2018/2017
Aurrez aurre	494.656 (% 55,71)	1.977	466.945 (% 54,71)	+27.711 (+% 5,93)
012 telefono bidez	362.338 (% 40,81)	1.447	361.406 (% 42,35)	+932 (+% 0,26)
Postontzi elektronikoaren bidez	28.055 (% 3,16)	112	22.660 (% 2,66)	+5.395 (+% 23,81)
Telegram bidez	2.829 (% 0,32)	11	2.407 (% 0,28)	+422 (+% 17,53)
GUZTIRA	887.878 (% 100)	3.547	853.418 (% 100)	+34.460 (+% 4,04)

Herritar gehienak [ZUZENEAN](#) zerbitzura informazioa eskatzera edo izapideren bat egitera doaz. Erabiltzaileek kontsultak egiteko erabiltzen dute batez ere telefono-zerbitzua, eta administrazio-izapideak egiteko aurrez aurreko kanala nahiago dute. Kontsultak edo izapideak batik bat honako 10 gai hauen inguruan egin ziren:

1. Etxebizitza
2. Gizarte-gaiak
3. Hezkuntza
4. Lana eta Enplegua
5. Jarduera ekonomikoak
6. Segurtasuna eta barne-arazoak (Trafikoa)
7. Administrazio publikoa
8. Euskara
9. Osasuna
10. Garraioa eta mugikortasuna

Hizkuntza dela eta, erabiltzaileek jarraitu zuten nagusiki gaztelania erabiltzen, [ZUZENEAN](#) zerbitzuan kontsultak egiteko. % 83,6k gaztelania erabili du eta % 12,9k euskara. Nabarmentzekoa da gaztelaniak jarraitzen duela lau kanaletan hizkuntza erabiliena izaten:

**2018-2017KO DATUAK, GUZTIRA
ZUZENEAN ZERBITZUAREN ERABILERA
(Hizkuntzaren arabera)**

HIZKUNTZA	ARRETA, GUZTIRA 2018	ARRETA, GUZTIRA 2017	ALDAKUNTZA 2018/2017
Gaztelania	742.085 (% 83,6)	707.484 (% 82,9)	+34.601
Euskara	114.187 (% 12,9)	122.892 (% 14,4)	-8.705
Zehaztu gabe	31.606 (% 3,6)	23.042 (% 2,7)	+8.565
GUZTIRA	887.878 (% 100)	853.418 (% 100)	+34.460

**2018KO DATUAK, GUZTIRA
KANALAREN ERABILERA
(Hizkuntzaren arabera)**

HIZKUNTZA	AURREZ AURRE	012 TELEFONO BIDEZ	POSTONTZI ELEKTRONIKOAREN BIDEZ	TELEGRAM BIDEZ
Gaztelania	442.632	271.782	25.231	2.440
Euskara	52.024	58.950	2.824	389
Zehaztu gabe		31.606		
GUZTIRA	494.656	362.338	28.055	2.829

Lurraldeen arabera, ZUZENEAN zerbitzuaren aurrez aurreko arreta-kopuru handiena Bizkaian izan zen, Bilboko bulegoetan. Guztira, 265.576 kontsulta egin ziren Bizkaian, aurreko urtean baino 18.705 gehiago.

**2018-2017KO DATUAK, GUZTIRA
ZUZENEAN ZERBITZUAREN ERABILERA
(Lurralde historikoaren/hiriburuaren arabera)**

LURRALDEA	ARRETAK, GUZTIRA 2018	ARRETAK, GUZTIRA 2017	ALDAKUNTZA 2018/2017
Bizkaia/Bilbo	265.546 (% 53,68)	246.841 (% 52,9)	+18.705
Gipuzkoa/Donostia	117.351 (% 23,72)	115.408 (% 24,7)	+1.943
Araba/Vitoria- Gasteiz	111.759 (% 22,59)	104.696 (% 22,4)	+6.790
GUZTIRA	494.656 (% 100)	466.945 (% 100)	+27.711

Sexuaren arabera, erabiltzaileetan, beste urte batez, emakumeek gizonen baino gehiago erabili zuten **ZUZENEAN**. Guztira, 520.378 emakumek jo zuten **ZUZENEAN** zerbitzura eta 333.427 gizonen. Alegia, erabiltzaileen % 58,6 emakumea da eta % 38 gizona. Nabarmentzekoa da 2018an emakumeek aurreko urtean baino 26.249 kontsulta gehiago egin zituztela.

**2018-2017KO DATUAK, GUZTIRA
ZUZENEAN ZERBITZUAREN ERABILERA
(Sexuaren arabera)**

SEXUA	ARRETAK, GUZTIRA 2018	ARRETAK, GUZTIRA 2017	ALDAKUNTZA 2018/2017
Gizona	333.427 (% 38)	332.833 (% 39)	+594
Emakumea	520.378 (% 58,61)	494.129 (% 57,90)	+26.249
Zehaztu gabe	34.073 (% 3,84)	26.456 (% 3,10)	+7.617
GUZTIRA	887.878 (% 100)	853.418 (% 100)	+34.460

**2018KO DATUAK, GUZTIRA
KANALAREN ERABILERA
(Sexuaren arabera)**

SEXUA	AURREZ AURRE	012 TELEFONO BIDEZ	POSTONTZI ELEKTRONIKOAREN BIDEZ	TELEGRAM BIDEZ
Gizona	204.384	115.534	12.443	1.066
Emakumea	289.439	214.386	15.612	941
Zehaztu gabe	833	32.418		822
GUZTIRA	494.656	362.338	28.055	2.829

BALORAZIOA

Erabiltzaileen % 65ek baieztatu du Herritarrei Arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzua ezagutzen duela. Horietatik, % 81ek erabiltzen duela baieztatzen du, batik bat informazioa bilatzeko edo izapideren bat egiteko.

ZUZENEAN zerbitzua erabiltzen dutenen % 95ek dio oso pozik edo nahiko pozik edo pozik dagoela Eusko Jaurlaritzak ematen duen zerbitzuarekin. Gainera, erabiltzaileek 8,9 punturekin balioesten dute bai erabilgarritasuna bai jasotako informazioaren argitasuna. Halaber, zerbitzuaren azkartasunaren inguruko balioespen positiboa egiten dute: [ZUZENEAN](#) zerbitzuko bulegoetan arreta jaso duten erabiltzaileen % 41ek 5 minutu baino gutxiago itxaron behar izan du.

ZUZENEAN

[ZUZENEAN](#) Herritarrei arreta emateko zerbitzu integrala, publikoa eta doakoa da; 2008an sortu zen. Denbora honetan, zerbitzua herritarrek beren euskal administrazio publikoarekin harremanetan egoteko tresna gisa finkatu da. Gaur egun, lau kanalen bidez ematen du arreta: aurrez aurre (*hiru hiriburu*etako bulegoetan), telefono bidez (012), online postontziaren bidez (www.euskadi.eus) eta berehalako mezularitzaren bidez (*Telegram, 688 67 12 34 zenbakiaren bitartez*).

Eusko Jaurlaritzak, legegintzaldi honetan, herritarrek administrazioarekin izandako elkarreraginean jaso duten kalitatea eta barne-kudeaketaren beraren kalitatea hobetzeko erronka hartu du bere gain, bai eta zerbitzu horretan esku hartzen duten eragileen koordinazioa hobetzeko ere. Gainera, [2020rako Berrikuntzako eta Gobernamendu Publikoko Plan Estrategikoak](#) bere sei jardun-ardatzen barruan aurreikusten duen ekimenetako bat, zehazki, [ZUZENEAN](#) garatu eta hobetzea da eta, horretarako, pertsoneri zerbitzuetara jotzeko aukera erraztea eta kanal anitzeko zerbitzu eraginkorra bermatzea.

Hezkuntza

LANBIDE-HEZIKETAKO V. EUSKAL PLANA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak eskatuta, Lanbide Heziketako V. Euskal Plana onetsi du.

Lanbide Heziketako V. Euskal Planak, Eusko Jaurlaritzaren ekintza estrategikoetan jaso denak, Lanbide Heziketako ikasleen prestakuntza sustatzea du helburu eta, horretarako, laugarren industria-iraultzak eskaintzen dituen aukeretara eta dituen eskakizunetara egokitzea. Iraultza horretan behar den bilakaera ez da izango dagoeneko badena hobetzea, baizik eta izango denera iristeko aurrera egitea. V. Euskal Plana hausnarketa horretara zuzentzen da, bereziki.

Zenbait arlok, industriak, zerbitzuek, nekazaritzak edo osasunak, besteak beste, datozen urteotan aldaketa sakona izango dute, bai prestakuntzaren aldetik, bai lanbide-aplikazioaren aldetik. 4.0 inguruneetara aurrera egitea, digitalizazioa eta konektibitatea, sistema adimendunak eta adimen artifiziala direla-eta, Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketa eraldatu beharko du.

Adimena, jasangarritasuna, osotasuna eta elkartasuna Planaren garapenean funtsezko elementuetako batzuk dira. Errealitateak ikasleak prestatzea eskatzen du, lanbide-eremu zabaletan bermeeekin moldatu ahal izateko, eta ez bakarrik lan zehatz batean. Hori dela eta, ikasleei beharrezko tresna berriak eman behar zaizkie, beren etorkizunaren jabe izan daitezen 4.0 gizartearen eredu berrian.

Errealitateak denboretara egokitzea eskatzen du, eraldatzen ari den gizartearen erronka berriei erantzutea, aintzat hartuta gizarte hori gero eta gehiago oinarritzen dela aurrerapen teknologikoetan, baina gizarte-balioak eta giza dimentsioa nabarmentzeko benetako beharrezkin. Hori dela eta, giza garapen jasangarriaren alde lan egin behar da eta, horretarako, pertsonen enplegarritasunerako eta enpresen lehiakortasunerako beharrezkin berriei aurre egin ahal izateko gaitasunak eta trebakuntzak sartu. Bilakaerak, gizarte-kohesioak eta une bakoitzean prestakuntza egokia izateak prestatuta dagoen gizarte modernoaren, aurreratuaren, jasangarriaren eta solidarioaren gizarte-ongizatea lortzera bideratzen gaituzte.

Datozen hiru urteetan, Hezkuntza Sailak ahalegin ekonomiko berezia egingo du, hura ezartzeko. Aldi horretan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren bidez, Plana garatzeko eta haren ezarpenaren onurak eskuratzeko lan egingo da. Azken helburua da Euskadin Lanbide Heziketako 43.000 ikasle inguruk laugarren industria-iraultzak sustatutako aldatetara egokitutako prestakuntza lortzea eta, aldi berean, beren bizitzako proiektuetan eta Euskadiko enpresa-egitura sendotzean eragina izango duen enplegarritasun altua lortzea.

Lanbide Heziketako zentroak ere funtsezko elementu izango dira, Planean jaso bezala. Horrela, prestakuntza-zentroek jarraituko dute iraultza horrek egokitzeko dituen beharretara egokitzen. Ikasgela berriak, espazio berriak – espazio elkarreragileak, errealitate birtualekoak eta murgiltzekoak–, elkarlaneko robotika, tailer eta biltegi adimendunak, fabrikazio aurreratuko makinak eta sistema adimendunak eta interkonektatuak... Elementu horiek Lanbide Heziketako zentroi sortzen doazen beharrianetara hobeto egokitzeko bide emango diete.

Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren bidez, LHk oraineko eta etorkizuneko erronkei erantzun ahalko die; horrela, LHk aukera izango du, batetik, egokitzapen- eta erreakzio-gaitasuna garatzeko eta, bestetik, aurrerapen- eta disrupzio-gaitasuna barneratzeko. Ezaugarri horiek guztiak beharrezkoak dira etorkizunari bermekin aurre egiteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK ARTE ESZENIKOAK SUSTATZEA XEDE DUEN 630.000 EUROKO KONTU-SAILA ONARTU DU ETA, HORREKIN BATERA, ARTE PLASTIKOAK SUSTATZEA HELBURU DUEN 445.000 EUROKO BESTE BAT

- **Lehenengo diru-laguntza deialdiaren bitartez, iaz 108 ekimen diruz lagundu ziren; arte plastikoak sustatzeko bidez, 61 proposamen babestu ziren**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak arte eszenikoak sustatzea xede duen 630.000 euroko kontu-saila onartu du gaurko bileran eta, horrekin batera, arte plastikoak eta ikusizko arteak sustatzea xede duen 445.000 euroko beste bat. Lehen arlori bideratuko diren diru-laguntzen helburua da arte eszenikoen inguruko formazioa, promozioa eta hedatzea bultzatzea; arte plastikoari zuzenduriko laguntzek, bere aldetik, sorkuntzan eta ekoizpenean ere jarriko dute arreta. Arte eszenikoetara bideratutako laguntzen bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 108 ekimen edo proiektu ezberdin babestu zituen iaz. Arte plastikoetarako eta ikusizko arteetarako laguntzei dagokienez, 61 ekimen lagundu ziren diruz.

Iaz arte eszenikoetara bideratutako diru-laguntzak birdefinitu egin ziren, arte eszenikoen inguruko politika bateratuak sustatzeko xedearekin, antzerkiaren zein dantzaren arloen inguruko ikuspegia batuz. Honela, diru-laguntza horiek prestakuntza, arte eszenikoen sustatzea eta hedatzea barne hartzen dituzten bost modalitateetan banatzen dira. Aurtengo berritasunik nagusia egonaldi-proiektuei zuzenduriko laguntzak dira, arte eszenikoak sustatzeko beste proiektu mota batzuetara ireki baitira orain (egonaldiak barne). Honako hauek dira aurtengo bost modalitateak.

- Antzerki arloko profesionalen prestakuntza: Prestakuntza integraleko 6 proiektu eta prestakuntza bereziko 3 proposamen babestu ziren iaz.
- Dantza prestakuntza: Atal honetako 7 proiektu lagundu ziren diruz 2018ko laguntzen bidez.
- Arte eszenikoak sustatzea (egonaldi-proiektuak barne): Diru-laguntza hauen bitartez 5 ekimen bultzatu ziren iaz.
- Kaleko antzerkia sustatzea: Xedea da kaleko zirkuitu bat bultzatzea, bai eta antzerki eta dantza konpainien bideragarritasuna sustatzea ere. Kasu honetan, udalek jasotzen dituzte diru-laguntzak, baina zeharkako onuradunak konpainiak dira, kontratazioak diru-laguntzei esker ugariko baitira. Modalitate honek arlo honetako kultura-eskaintza sustatzen lagunduko du

ere. Iaz, 51 udalek jaso zuten modalitate honen ondoriozko laguntzaren bat.

- Dantza zirkuitua: Konpainiek jasotzen dituzte diru-laguntzak, kalitatezko zirkuitu bat bultzatzeko kontratazioaren ugaritzeari esker. Iaz, 36 konpainiak jaso zituzten mota honetako diru-laguntzak.

Deialdi honetatik kanpo, eta arte eszenikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diru-laguntzak ditu antzerki ekoizpenerako eta dantza ekoizpenerako. Kulturgintza sustatzeko xedearekin aurreko astean onartu zen deialdiko zazpi modalitateetatik bi, halaber, arte eszenikoei lotuta daude: antzerki-testuak eta dantza koreografikoak. Azkenik, Eusko Jaurlaritzako proiektu, jaialdi eta ekimen ugari babesten ditu, diru-laguntza izendunen bitartez.

Arte plastikoak

Bestetik, ikusizko arteak babesteko bideratu diren 445.000 euroekin emandako diru-laguntzak hiru modalitateetan banatuko dira:

1. Sustatze-hedatze modalitatea (55.000 euroko aurrekontua).
 - a) Euskadiko Kultur Zentroetan egingo diren arte garaikideko ekitaldiak edo adierazpenak antolatzea (jaialdiak, lehiaketak, erakusketak...) eta aipatuetan parte hartzea; baita beren euskarri dokumentalak ere.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoan egingo diren arte garaikidearen inguruko sentsibilizazio-ekitaldiak (topaketak, jardunaldiak, tailerrak, hitzaldiak); baita beren euskarri dokumentalak ere.
2. Argitalpenen modalitatea (121.000 euro aurrekontua): Euskarri ezberdineko argitalpenak egitea, beti ere xedea Euskal Herriko arte garaikidea hedatzea eta artistak eta beren lana sustatzea denean.
3. Sorkuntza-ekoizpena modalitatea (269.000 euro): Sorkuntza-ekoizpen plastikoaren eta ikusizko sorkuntza-ekoizpenaren arloan proiektuak gauzatzea: lan artistikoa gauzatzea eta ikerketa.

Segurtasuna

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO, ZENBAIT JARDUERA, ZENTRO EDO ESTABLEZIMENDURI ESKATU AHAL ZAIZKIEN AUTOBABES BETEBEHARRAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUAREN ALDAKETA ONARTU DA

- **Arauketa berriak arriskuei eta larrialdiei hobeto erantzutera behartzen du, kalteak saihesteko edo murrizteko, babes zibileko agintariekin koordinatuta eta planifikatuta.**

Eusko Jaurlaritzak Larrialdiei aurre egiteko, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, aldatzea onartu du. Era horretara gizarte guztiek, bai gizarteak berak bai, bereziki, arriskuak sortzen dituzten edo ahulguneak dituzten jardueratako titularrek, dituzten hainbat eta hainbat arriskuren eraginak gutxitu nahi dira, arriskuaren analisia egiteko eta larrialdiei erantzuna emateko prestatzeko mekanismoak abian jarrita.

Aurretik zegoen araudiak jada behartzen zituen arriskuak sortzen zituzten edo ahulguneak zituzten jarduerak eta establezimenduak autobabes-planak egitera eta ezartzera. Aldaketa honekin araudia Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen eta indarrean dagoen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretura, Estatuan babes zibilaren arloan indarrean dagoen araudira eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko administrazio elektronikoaren arauketara egokitzen da.

Dekretuak arautu behar dituen jarduera-motak eguneratu egin dira, nahiz eta horrek ez dakarren autobabes-plana izatera behartuta daudenen esparrua hedatzea edo mugatzea, kontuan hartuta Euskadin Estatuko oinarrizko arauan baino zabalagoa eta zorrotzagoa dela.

Dekretuaren eranskinean jasotako jarduerari dagozkien betebeharrak aipatzen dira, besteak beste honakoak: autobabes-plana egin, ezarri, mantendu, berrikusi eta eguneratzea; jarduera egiteko baimena ematen duen agintariari jakinaraztea; oinarrizko datuak Eusko Jaurlaritzaren Autobabes Planen Erregistrora bidaltzea eta eguneratuta edukitzea; aldizkako ariketak edo simulakroak egitea; agintariekin batera lan egitea autobabesa herritarren eta jardueraren eraginpean dauden pertsonen artean sustatzeko eta hedatzeko, bai eta babes zibilari edozein larrialdiren edo arriskua areagotu izanaren berri azkar emateko ere, etab. Establezimendu horietako langileek, ahal duten neurrian, derrigorrez hartu behar dute parte autobabes-planean edo autobabeseko bestelako neurri eta dispositiboetan.

Ikastetxeak babes zibilaren arloko informazio, prebentzio eta zabalkunde jarduerak programatzera eta aldizka ebakuazio ariketa edo simulakroak egitera behartzen dira.

Establezimenduaren edo jardueraren kanpotik hautematen diren simulakroen hasieraren eta amaieraren berri SOS-Deiak zerbitzuari ematea derrigorrezkoa dela ezartzen da, baita halako ariketa edo simulakroetan larrialdietako zerbitzu publikoek parte hartzen dutenean ere. Azken horiek simulakroan parte hartzea nahi izanez gero, aurretik planteatu behar zaie agintariei, egokia den ebaluatu ahal izan dezaten.

Desagertu egin da homologazioa autobabes-plan batzuetan, eta horrek jardueren titularren karga administratiboa murrizten du, baina administrazioaren kontrola gutxitu gabe; izan ere, autobabes-planaren datuak erregistratzea nahitaezkoa izango da aurrerantzean ere eta administrazioak agiri gehiago eskatu ahal izango ditu edo planarekin zerikusia duen guztia ikuskatu ahal izango du.

Establezimendu edo gune berean, esate baterako, merkataritza gune batean, autobabes-planak izan behar dituzten hainbat jarduera badaude, jarduera horiek biltzen dituen establezimenduko planak jarduera partikular bakoitzaren planak eta arriskuen analisia jaso behar ditu edo autobabes-plan bakarra egin behar da.

Beste berrikuntza bat da aldi baterako ekitaldietan (musika-jaialdiak, jende asko elkartzen duten ekintzak, etab.) larrialdietako autobabesa berariaz aurreikusi behar dela. Horretarako, ekitaldi horien antolatzaileek aurreikusten diren arriskuen dispositiboak prestatzera eta ezartzera behartzen dira, babes-planetakoan antzeko metodologiari jarraituz, baina modu sinpleagoan, malguagoan eta operatiboagoan, bai antolatzailearentzat bai larrialdietako zerbitzuentzat.

Azkenik, erregistroaren arauketa ere aldatzen da administrazio elektronikora egokitzeko, eta behartuta dauden subjektuek elektronikoki inskribatuko dituzte euren datuak autobabes-planen erregistroan. Bestalde, argitzen da Erregistroan izena ematea datuen adierazpena baino ez dela, eta ez duela esan nahi administrazioak datuok onartu edo baliozkotu dituenik, ez eta jarduerari hasiera emateko behar diren titulu gaitzaileak ordezkatzeko dituenik ere.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO APRUEBA UN CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL EVE Y EL IVAP PARA MEJORAR LA EFICIENCIA ENERGÉTICA DE LA SEDE DEL IVAP EN BILBAO

- **Se realizarán auditorías energéticas y otro tipo de estudios para que la sede del Instituto Vasco de Administración Pública de Bilbao sea más sostenible**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “*Convenio de colaboración entre el Ente Vasco de la Energía (EVE) y el Instituto Vasco de la Administración Pública – IVAP para promover la sostenibilidad energética en edificios e instalaciones dependientes del IVAP*”. Así las dos entidades pretenden avanzar en la sostenibilidad energética y mejorar la gestión eficiente de los edificios o centros del IVAP.

El convenio suscrito por el Ente Vasco de la Energía, EVE, y el Instituto Vasco de la Administración Pública, IVAP, recoge las siguientes actuaciones:

- Auditorías Energéticas para identificar medidas de eficiencia energética e implantación de energías renovables en la sede que el IVAP tiene en Bilbao, en la calle Alameda Recalde 18. Las auditorías serán realizadas según los criterios establecidos por la “Comisión de Sostenibilidad Energética del Gobierno Vasco” en el plan de actuación y las propuestas de revisión posteriores.
- Otros estudios técnicos necesarios para determinar las actuaciones a realizar y establecer los Planes de Actuación del IVAP.
- Certificación energética de la sede de Bilbao.
- Elaboración del Plan de Actuación que recoja las medidas de eficiencia energética, de sustitución de energías por otras renovables o más sostenibles.

El acuerdo establece que el EVE, se encargará de las auditorías, las certificaciones energéticas, su análisis y posterior aprobación, así como de apoyar al IVAP en la redacción de un Plan de Actuación para la implantación de medidas de eficiencia energética e instalaciones de energías renovables en sus edificios e instalaciones.

Así mismo, el IVAP se compromete a revisar y aprobar los aspectos técnicos para las auditorías, certificaciones y estudios y a aportar la información necesaria para llevarlas adelante. Además, el Instituto Vasco de la Administración Pública participará de forma activa en el análisis de los resultados, en elaborar un Plan de Actuación y en ponerlo en práctica siguiendo las recomendaciones de ahorro y renovables.

Este convenio estará vigente durante un año prorrogable hasta un máximo de 4 años. Tanto el EVE como el IVAP, han nombrado cada uno un representante para crear una Comisión de Seguimiento del convenio, un órgano que funcionará como vehículo de transmisión de las informaciones, comunicaciones, dudas o modificaciones que puedan surgir en el desarrollo de las actuaciones establecidas en el convenio de colaboración.

SOSTENIBILIDAD ENERGÉTICA

El “*Convenio de colaboración entre el Ente Vasco de la Energía (EVE) y el Instituto Vasco de la Administración Pública – IVAP para promover la sostenibilidad energética en edificios e instalaciones dependientes del IVAP*” responde al compromiso establecido en el “[*Decreto 178/2015, de 22 de septiembre*](#)” sobre la sostenibilidad energética del sector público de Euskadi para regular el ahorro, la eficiencia energética y el uso de energías renovables en el sector público. Ese decreto es el que establece que los edificios e instalaciones del sector público necesitan contar con auditorías energéticas de edificios e instalaciones y un plan de actuación.

Gobernanza Pública y Autogobierno

ZUZENEAN, EL SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA DEL GOBIERNO VASCO, ATENDIÓ CASI 900.000 CONSULTAS EN 2018, UN 4% MÁS QUE EL AÑO ANTERIOR

- Las oficinas de las 3 capitales vascas siguen siendo el canal de consulta más utilizado por la ciudadanía
- Los temas sobre los que más se consulta son, un año más, los relacionados con vivienda, asuntos sociales y educación

El Servicio de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco, [ZUZENEAN](#), respondió el año pasado a 887.878 consultas. Esto es, una media de 3.547 al día, de las cuales el 55,7% fueron atenciones presenciales, el 40,8% telefónicas en el 012, el 3,1% mediante el buzón online www.euskadi.eus y el 0,32% por mensajería instantánea de *Telegram*.

El número total de consultas ha crecido un 4,04% respecto al 2017. Así, en 2018 el Gobierno Vasco ha registrado 34.460 consultas más que el año anterior. Cabe destacar que se consolida el aumento del uso del buzón online de www.euskadi.eus: el número de consultas a través de este canal fue de 28.055, un 23,81% más que el año anterior. También es destacable el aumento del uso del servicio de mensajería instantánea, que creció en 2018 un 17,53%.

**DATOS TOTALES 2018-2017
UTILIZACIÓN ZUZENEAN
(Por canal)**

CANAL	ATENCIÓNES TOTALES 2018	ATENCIÓNES DIARIAS 2018	ATENCIÓNES TOTALES 2017	VARIACIÓN 2018/2017
Presencial	494.656 (55,71%)	1.977	466.945 (54,71%)	+27.711 (+5,93%)
Telefónico 012	362.338 (40,81%)	1.447	361.406 (42,35%)	+932 (+0,26%)
Buzón electrónico	28.055 (3,16%)	112	22.660 (2,66%)	+5.395 (+23,81%)
Telegram	2.829 (0,32%)	11	2.407 (0,28%)	+422 (+17,53%)
TOTAL	887.878 (100%)	3.547	853.418 (100%)	+34.460 (+4,04%)

La mayoría de la ciudadanía acude al servicio [ZUZENEAN](#) para pedir información o realizar algún trámite. Mientras que las personas usuarias utilizan más el servicio telefónico para hacer consultas, prefieren el canal presencial

para realizar trámites administrativos. Las 10 materias más habituales sobre las que se realizaron las consultas o trámites son:

1. Vivienda
2. Asuntos sociales
3. Educación
4. Trabajo y Empleo
5. Actividades Económicas
6. Seguridad e Interior (Tráfico)
7. Administración Pública
8. Euskera
9. Salud
10. Transporte y Movilidad

Respecto al **idioma**, las personas usuarias continuaron utilizando más el idioma castellano para sus consultas en [ZUZENEAN](#). El 83,6% utiliza el castellano frente al 12,9% que lo hace en euskera. Cabe destacar que el castellano continúa siendo el idioma más utilizado en los cuatro canales:

**DATOS TOTALES 2018-2017
UTILIZACIÓN ZUZENEAN
(Por idioma)**

IDIOMA	ATENCIÓNES TOTALES 2018	ATENCIÓNES TOTALES 2017	VARIACIÓN 2018/2017
Castellano	742.085 (83,6%)	707.484 (82,9%)	+34.601
Euskera	114.187 (12,9%)	122.892 (14,4%)	-8.705
Sin especificar	31.606 (3,6%)	23.042 (2,7%)	+8.565
TOTAL	887.878 (100%)	853.418 (100%)	+34.460

**DATOS TOTALES 2018
UTILIZACIÓN CANAL
(Por idioma)**

IDIOMA	PRESENCIAL	TELEFÓNICO 012	BUZÓN ELECTRÓNICO	TELEGRAM
Castellano	442.632	271.782	25.231	2.440
Euskera	52.024	58.950	2.824	389
Sin especificar		31.606		
TOTAL	494.656	362.338	28.055	2.829

Por territorios, el mayor número de atenciones presenciales de [ZUZENEAN](#) se produjo desde Bizkaia, en las oficinas de Bilbao. En total fueron 265.576 consultas en Bizkaia, 18.705 más que el año anterior.

**DATOS TOTALES 2018-2017
UTILIZACIÓN ZUZENEAN
(Por Territorio Histórico/capital)**

TERRITORIO	ATENCIONES TOTALES 2018	ATENCIONES TOTALES 2017	VARIACIÓN 2018/2017
Bizkaia/Bilbao	265.546 (53,68%)	246.841 (52,9%)	+18.705
Gipuzkoa/San Sebastián	117.351 (23,72%)	115.408 (24,7%)	+1.943
Araba/Vitoria- Gasteiz	111.759 (22,59%)	104.696 (22,4%)	+6.790
TOTAL	494.656 (100%)	466.945 (100%)	+27.711

En cuanto al sexo de las personas usuarias, un año más, las mujeres utilizaron **ZUZENEAN** más que los hombres. En total 520.378 mujeres acudieron al servicio **ZUZENEAN** frente a 333.427 hombres. Es decir, el 58,6% de las personas usuarias son mujeres y el 38% son hombres. Cabe destacar que durante el 2018 las mujeres realizaron 26.249 consultas más que el año anterior.

**DATOS TOTALES 2018-2017
UTILIZACIÓN ZUZENEAN
(Por sexo)**

SEXO	ATENCIONES TOTALES 2018	ATENCIONES TOTALES 2017	VARIACIÓN 2018/2017
Hombre	333.427 (38%)	332.833 (39%)	+594
Mujer	520.378 (58,61%)	494.129 (57,90%)	+26.249
Sin especificar	34.073 (3,84%)	26.456 (3,10%)	+7.617
TOTAL	887.878 (100%)	853.418 (100%)	+34.460

**DATOS TOTALES 2018
UTILIZACIÓN CANAL
(Por sexo)**

SEXO	PRESENCIAL	TELEFÓNICO 012	BUZÓN ELECTRÓNICO	TELEGRAM
Hombre	204.384	115.534	12.443	1.066
Mujer	289.439	214.386	15.612	941
Sin especificar	833	32.418		822
TOTAL	494.656	362.338	28.055	2.829

VALORACIÓN

El 65% de las personas consultadas afirma conocer el Servicio de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco. De ellas 81% afirma que lo utiliza, sobre todo, para buscar información o realizar algún trámite.

El 95% de quien lo usa, afirma estar muy o bastante satisfecha o satisfecho con el servicio que presta el Gobierno Vasco. De hecho, las personas usuarias valoran con un 8,9 de nota tanto la utilidad como la claridad de la información recibida. También valoran positivamente la rapidez del servicio: el 41% de las personas usuarias atendidas en las oficinas de [ZUZENEAN](#) han tenido que esperar menos de 5 minutos.

ZUZENEAN

[ZUZENEAN](#) es un servicio integral, público y gratuito de atención a la ciudadanía que nació en 2008. Durante este tiempo servicio se ha consolidado como herramienta de relación de la ciudadanía con su Administración Pública Vasca. Hoy en día, las 108 personas que trabajan en este servicio, atienden a través de cuatro canales: presencial (*oficinas en las tres capitales*), telefónico (012), buzón online (www.euskadi.eus) y mensajería instantánea (*Telegram a través del número 688 67 12 34*).

El Gobierno Vasco ha asumido, esta legislatura, el reto de mejorar, tanto la calidad percibida por la ciudadanía en su interacción con la Administración, como la de la propia gestión interna, y la coordinación de los diferentes agentes que intervienen en este servicio. De hecho, una de las iniciativas que contempla el "[Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública 2020](#)", dentro de sus seis ejes de actuación es, precisamente, desarrollar y mejorar [ZUZENEAN](#), facilitando a las personas el acceso a los servicios y garantizando un efectivo servicio multicanal.

Educación

APROBADO EL V PLAN VASCO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno, a petición de la Consejera de Educación Cristina Uriarte, ha aprobado el V Plan Vasco de Formación Profesional.

El V Plan Vasco de Formación Profesional, Plan recogido dentro de las acciones estratégicas del Gobierno Vasco, persigue impulsar la formación del alumnado de FP, adecuándose a las oportunidades que ofrece y necesidades que exige la cuarta revolución industrial. El progreso necesario en dicha revolución no va a consistir en mejorar lo que ya es, sino en avanzar hacia lo que será. El V Plan Vasco se dirige específicamente a esta reflexión.

Áreas como la industria, los servicios, la agricultura o la salud experimentarán en los próximos años un profundo cambio, tanto en lo que respecta a la formación como a su aplicación profesional. El avance hacia los entornos 4.0, la digitalización y conectividad, los sistemas inteligentes y la inteligencia artificial, obliga al Gobierno Vasco a transformar la Formación Profesional.

La inteligencia, la sostenibilidad, la integración y la solidaridad son algunos de los elementos fundamentales en el desarrollo del Plan. La realidad exige formar al alumnado para poder desenvolverse con garantías en amplios campos profesionales y no vinculado únicamente a un trabajo en concreto. Por ello es necesario dotar al alumnado con nuevas herramientas necesarias que les permita ser dueños de su propio futuro en un nuevo modelo de sociedad 4.0.

La realidad exige adecuarse a los tiempos; dar respuesta a los nuevos retos de una sociedad en transformación, fundamentada cada vez más en los avances tecnológicos pero con una profunda necesidad de realzar los valores sociales y la dimensión humana. Es por ello fundamental trabajar en pos de un desarrollo humano sostenible, basándose para ello en la incorporación de competencias y cualificaciones que logren hacer frente a las nuevas necesidades de empleabilidad de las personas y competitividad de las empresas. Progreso, cohesión social y preparación adecuada en cada momento, nos dirige hacia el bienestar social de una sociedad preparada, moderna, avanzada, sostenible y solidaria.

Durante los próximos tres años, desde el Departamento de Educación se va a realizar un importante esfuerzo económico para su implantación. Durante ese periodo, a través de la Viceconsejería de Formación Profesional se trabajará para desarrollar el Plan, y obtener los beneficios de su implantación. El objetivo final es que los cerca de 43.000 alumnos y alumnas de la FP de Euskadi logren una formación adaptada a los cambios impulsador por la cuarta revolución industrial, y con ello lograr una alta empleabilidad que redunde en sus proyectos vitales, así como en el fortalecimiento del tejido empresarial de Euskadi.

Los centros de Formación Profesional serán otro de los elementos fundamentales, recogidos en el Plan. Así, también los centros de formación continuarán adecuándose a las necesidades de adecuación que requiere la citada revolución. Nuevas aulas, nuevos espacios –espacios interactivos, de realidad virtual e inmersivos-, robótica colaborativa, talleres y almacenes inteligentes, máquinas de fabricación avanzada y sistemas inteligentes e interconectados... elementos que facilitarán a los centros de FP una mayor adaptación a las necesidades que vayan surgiendo.

El V Plan Vasco de Formación Profesional va a permitir a la FP dar respuesta a los retos presentes y futuros; permitiéndole desarrollar no solo una capacidad de adaptación y reacción, sino de incluir también una capacidad de anticipación y de disrupción. Características todas ellas necesarias para afrontar el futuro con garantías.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO HA APROBADO UNA AYUDA DE 630.000 EUROS DESTINADA A IMPULSAR LAS ARTES ESCÉNICAS Y OTRA DE 445.000 EUROS DIRIGIDA AL FOMENTO DE LAS ARTES PLÁSTICAS

- **A través del primer conjunto de ayudas el año pasado se otorgaron subvenciones a 108 iniciativas, mientras que las ayudas al ámbito de las artes plásticas sirvieron para apoyar 61 iniciativas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una partida de 630.000 euros destinada a impulsar las artes escénicas y otra de 445.000 euros dirigida al impulso de las artes plásticas y visuales. El objetivo de las subvenciones destinadas al primero de estos ámbitos es impulsar la formación, promoción y difusión de las artes escénicas, mientras que las ayudas a las artes plásticas ponen también el foco en la creación y producción. A través de las ayudas destinadas a las artes escénicas, el año pasado el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco apoyó un total de 108 iniciativas o proyectos diferentes. En lo que a las ayudas a las artes plásticas y visuales se refiere, se apoyaron económicamente 61 iniciativas.

Las subvenciones dirigidas a las artes escénicas fueron redefinidas el pasado año con el fin de impulsar políticas unificadas en torno a las artes escénicas, aunando tanto el ámbito del teatro como la danza. Así, dentro de estas subvenciones se incluyen cinco modalidades que abarcan los procesos de formación, fomento de las artes escénicas y, en tercer lugar, la difusión. La principal novedad de este año tiene que ver con las ayudas destinadas a los proyectos de residencia, que ahora se abren a otro tipo de propuestas de impulso a las artes escénicas, aunque incluyendo las residencias. De esta manera, las cinco modalidades de este año quedan de esta forma.

- Formación de profesionales del ámbito teatral: El año pasado se apoyaron 6 proyectos de formación integral y 3 de formación específica.
- Formación en danza: A través de las ayudas de 2018 se apoyaron 7 proyectos de formación en danza.
- Promoción de las artes escénicas (incluye proyectos de residencia): El pasado ejercicio se otorgaron subvenciones a 5 propuestas.
- Fomento del teatro de calle: El objetivo es promover un circuito de calle, así como impulsar la viabilidad de compañías de teatro y danza. En este caso, las subvenciones van destinadas a los ayuntamientos, pero los beneficiarios indirectos son las compañías, ya que gracias a estas subvenciones se fomentarán las contrataciones. Esta modalidad servirá también para impulsar

la oferta cultural en este ámbito. El año pasado se beneficiaron de esta modalidad 51 ayuntamientos.

- Circuito de danza: Las subvenciones van destinadas a las compañías con el fin de favorecer un circuito de calidad a través del impulso a las contrataciones. El año pasado se beneficiaron de estas ayudas 36 compañías.

Al margen de esta convocatoria, dentro del ámbito de las artes escénicas, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco cuenta con ayudas a la producción teatral y la producción de danza. Asimismo, dos de las siete modalidades que recoge la convocatoria para la creación cultural, aprobada la pasada semana, tienen que ver con las artes escénicas: textos teatrales y danzas coreográficas. Finalmente, el Gobierno Vasco subvenciona numerosos proyectos, festivales e iniciativas a través de subvenciones nominativas.

Artes plásticas

Por otro lado, las subvenciones dirigidas a impulsar las artes plásticas y visuales, con ese presupuesto de 445.000 euros, se dividirán en tres modalidades:

1. Modalidad de promoción-difusión (55.000 euros de presupuesto):
 - a) Organización y/o participación en eventos o manifestaciones de arte contemporáneo (certámenes, festivales, exposiciones...) a celebrar en centros culturales de Euskadi, así como sus soportes documentales.
 - b) Manifestaciones de sensibilización sobre el arte contemporáneo (encuentros, jornadas, congresos, talleres, conferencias) que se lleven a efecto en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como sus soportes documentales.
2. Modalidad de publicaciones (121.000 euros de presupuesto): Destinadas a la elaboración de publicaciones en distintos soportes cuyo objeto sea la difusión del arte contemporáneo en Euskadi, así como la promoción de artistas y su obra.
3. Modalidad de creación-producción (269.000 euros): Dirigidas a la realización de proyectos en el campo de la creación-producción plástica y visual (producción de obra artística e investigación).

Seguridad

APROBADO LA MODIFICACIÓN DEL DECRETO POR EL QUE SE REGULAN LAS OBLIGACIONES DE AUTOPROTECCIÓN FRENTE A SITUACIONES DE EMERGENCIA EXIGIBLES A DETERMINADAS ACTIVIDADES, CENTROS O ESTABLECIMIENTOS

- **La nueva regulación obliga a mejorar la respuesta frente a riesgos y emergencias para evitar daños o minorarlos mediante la planificación y la coordinación con las autoridades de protección civil**

El Gobierno Vasco ha aprobado la modificación del Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, que regula las obligaciones de autoprotección de determinadas actividades, centros o establecimientos frente a situaciones de emergencia. Se trata así de minimizar los efectos de los múltiples riesgos a los que cualquier sociedad está expuesta, desde la propia sociedad y, en particular, desde las personas titulares de las actividades generadoras de los riesgos o que presentan elementos vulnerables, mediante la puesta en marcha de mecanismos para el análisis del riesgo y para la preparación de la respuesta frente a emergencias.

La normativa precedente ya obligaba a las actividades y establecimientos generadoras de riesgos o que tuvieran elementos vulnerables a realizar e implantar planes de autoprotección. Esta modificación la adecua al vigente Decreto Legislativo 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias, y a la vigente normativa estatal de protección civil, así como a la regulación de la administración electrónica en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Se actualiza la relación de los tipos de actividades sujetas al Decreto, aunque ello no suponga una extensión o restricción del ámbito de los sujetos obligados a disponer de plan de autoprotección, que resulta más amplia y exigente en Euskadi que en la norma básica estatal.

Se enumeran las obligaciones que corresponden a las actividades incluidas en el anexo al Decreto, que comprenden las de elaborar, implantar, mantener, revisar y actualizar el plan de autoprotección; comunicarlo a la autoridad que otorgue la licencia para la explotación de la actividad; remitir los datos básicos al Registro de planes de autoprotección del Gobierno Vasco y mantenerlos actualizados; realizar ejercicios o simulacros periódicos; colaborar con las autoridades tanto en la difusión y promoción de la autoprotección a la ciudadanía y a las personas afectadas por la actividad, como en comunicar con celeridad a protección civil de cualquier emergencia o de un incremento del riesgo, etc. El personal de estos establecimientos tiene obligación de

participar, en la medida de sus capacidades, en el plan de autoprotección u otros dispositivos y medidas de autoprotección

Se obliga a los centros escolares a programar actividades de información, prevención y divulgación en materia de protección civil, y a realizar periódicamente un ejercicio o simulacro de evacuación.

Se obliga a comunicar a SOS-Deiak el inicio y finalización de los simulacros que sean percibidos desde el exterior del establecimiento o actividad, o en los que participen servicios públicos de emergencias. Si se quiere la participación de estos últimos en el simulacro debe plantearse a las autoridades con antelación a fin que puedan evaluar la pertinencia.

Desaparece la figura de la homologación previa de ciertos planes de autoprotección, lo cual minora las cargas administrativas de los titulares de las actividades, sin que merme el control administrativo, dado que seguirán obligados a registrar los datos del plan de autoprotección y la administración podrá requerirles más documentación o inspeccionar lo relacionado con el plan.

Si en un mismo establecimiento o espacio, por ejemplo en un centro comercial, se contienen diversas actividades que deban contar con planes de autoprotección, el plan del establecimiento que los contenga debe integrar los planes y el análisis de los riesgos de cada una de las actividades particulares o realizar un plan de autoprotección integral único.

Otro aspecto novedoso es que se contempla específicamente la autoprotección ante emergencias en eventos temporales (festivales de música, eventos multitudinarios, etc.). Para ello se obliga a los organizadores a elaborar e implantar dispositivos de riesgos previsibles, siguiendo una metodología similar a la de los planes de autoprotección, pero de un modo simplificado, más flexible y operativo, tanto para el organizador como para los servicios de emergencia.

Por último, se modifica la regulación del registro para adaptarlo a la administración electrónica, de forma que los sujetos obligados inscribirán electrónicamente sus datos en el registro de planes de autoprotección. Y se clarifica que la inscripción registral es meramente declarativa de los datos inscritos, sin que implique validación o aprobación administrativa de los mismos, ni sustituya a los títulos habilitantes precisos para el inicio de la actividad.